



Osakidetza


EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Prestakuntza Espezializatuko Programa
Guruztetako Unibertsitate Ospitalea
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)

Neurokirurgia

Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua Guruztetako Unibertsitate Ospitalea

**Irakaskuntza-ikuspegia:
Zazpi gaitasun-eremutan oinarritutako lanbide-profila**



Konpromisoa: Erantzukizun sozialean oinarritutako irakaskuntza-akreditazioa

Erreferentzia: Morán-Barrios J. **Un nuevo profesional para una nueva sociedad. Respuestas desde la Educación Médica: la formación basada en competencias.** Rev. Asoc. Esp. Neuropsiq. 2013; 33 (118): 385-405.
<http://www.revistaen.es/index.php/aen/article/view/16614/16454>



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



NEUROKIRURGIA

Neurokirurgia espezialitate kirurgikoa da eta nerbio-sistema zentraleko patologia kirurgikoen ikasketa, ebaluazio, diagnostiko, tratamendu eta ikerketaren ardura du -hipofisia barne-, bai eta nerbio-sistema periferikokoa eta errakikoa ere. Arlo hauek ezartzen ditu: neuroonkologia, neurotraumatologia (traumatismo kranioentzefalikoa eta errakimedularra), patologia baskular zerebroespinala, patologia errakideoa, neurokirurgia pediatrikoa (malformazio kranioespinalak barne) eta neurokirurgia funtzionala (epilepsia, ohiz kanpoko mugimenduak, psikokirurgia, etab.), minaren terapia kirurgikoak eta nerbio-sistemaren patologia infekzioso kirurgikoa.

Jarraian zehaztuko dugu:

- Nor gara
- Non gaude
- Prestakuntza-eskaintza
- Prestakuntza-ibilbidea (Txandaketak)
- Ikerkuntza
- Prestakuntzaren ebaluazioa




Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Spainia)



Nor gara



Zerbitziburua

Iñigo Pomposo Gaztelu dk



Tutorea:

**Alejandro Carrasco González
dk**



Tutorea:

**Gregorio Catalán Uribarrena
dk**

Gurutzetako Ospitalea 1955ean zabaldu zen (“Enrique Sotomayor” Osasun Egoitza). 1971n bere estatusa aldatu zuen eta Osasun Hiria bilakatu zen, Traumatologia Eraikina zabaldu zelako (A Aldea), bertan Neurokirurgia Zerbitzua dago. Orduan Ramón Jacas dk. zen zerbitziburua, bere garaian zerbitzuari prestigioa eman zion ospe handiko profesionala.

Urte horietan Neurokirurgia Zerbitzua doktore hauek gidatu dute: Ramón Jacas Ejarque, Antonio Díaz Aramendi, Jesús Garibi Undabarrena eta Iñigo Pomposo Gaztelu.

Ekintzarik esanguratsuenak hauek izan dira:

- Ohiz kanpoko mugimenduen tratamendu kirurgikorako erreferentzia-zentroa (Parkinson gaixotasuna, distoniak...)
- Epilepsia mesial tenporala eta extratenporalaren tratamendu kirurgikorako erreferentzia-zentro autonomikoa.
- Bi operazio-gelen irekitzea ebakuntza-barneko OTArekin (Ordenagailu bidezko Tomografia Axiala) eta ebakuntza-barneko EMarekin (Erresonantzia Magnetikoa).
- Hipofisi eta oinalde-kranialaren patologia onkologikoko tratamendu kirurgikoaren garapena.
- Garun-, hipofisi- eta errakideo-kalteen tratamendu endoskopikoaren ezarpena.
- Zenbait ikerketa proiektutan parte-hartzea eta lidergoa: traumatismo kranioentzefaliko larria (Centre TBI), neuroonkologia eta garuneko patologia baskular hemorragikoa (STICH, MISTIE III) eta enkarguzko hainbat ikerketa proiektu.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



- Prestakuntza kirurgikoko oinarrizko mailaren eta maila aurreratuaren bultzada eta garapena neurokirurgian eta mikrokirurgian, laborategi esperimentalean (LHEC) - <http://www.formacionencirugia.com/>

1972. urtetik espezialistak prestatzeko akreditatua dago eta gaur egungo prestakuntza gaitasuna urtean BAME batekoa da, gehienez ere.

Informazio gehiagorako, gure zerbitzu-zorroa hemen ikus daiteke:
http://neurocirugia.hospitalcruces.com/8_5262/pagina.aspx

2014ko otsailaren 25ean hauek ziren langileak:

- 1 zerbitzuburu
- 2 atalburu
- 6 mediku adjuntu
- 3 barne-mediku egoiliar

Zerbitzuak Arlo edo unitate asistentzial hauek ditu:

- **2 operazio-gela kirurgia programaturako:** neurokirurgia arloko interbentzio kirurgiko programatuak egiten dira, anestesia orokorra edo sedazioaren bidez (10 saio astean)
- **1 operazio-gela neurokirurgia pediatrikorako:** espezialitateari dagozkion jarduera kirurgikoak egiten dizkiegu paziente pediatrikoei, anestesia orokorra edo sedazioaren bidez. 1-2 saio hilabetean
- **1 operazio-gela larrialdietarako:** larrialdiko edozein desordena neurokirurgikoa kirurgikoki tratatzen da.
- **Ospitalizazio solairua:** arlo honetako jarduerari hau guztia dagokio: eguneroko bisita-pasea, informazioa senideei, historia klinikoak eta ebolutiboak egitea eta tratamenduak berrikustea. Era berean, arreta berezia eskaintzen zaie hauei: kontsulta artekoa, Kritikoen Unitateko pazienteen jarraipena, Pediatria eta goizeko larrialdiko asistentzia. Solairuko eta pertsonaleko gainbegirale espezifikoa dago. Ospitaleen arteko lekualdatzeak kudeatzen dira. Ohe kopurua: 28



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



-**Kritikoen Unitatea:** Politraumatizatuaren maneia, garezur traumatismo larria, operazio-ondokoak eta koma neurokirurgikoan dagoen pazienteak.

-**Kanpo kontsultak:** egunero kontsulta orokor espezializatua eta beste monografiko batzuk, erizain trebatu batek artatzen du.

-**Saio Klinikoak:** zerbitzuak egunero Zentroan artatutako paziente guztien aurre-ebaluazioa egiten du, intereseko gaiak jorratzen ditu, aurreko interbentzioak berrikusten ditu, bai eta ebakuntza-barneko irudiak, kasu klinikoak eta proposatutako jokabideak.

-**Asteko Saioak:** berrikuste tematikoa, bibliografikoa, eguneratzea eta morbidimortalitatea...

-**Diziplina anitzeko Batzordeak:** epilepsia, ezohiko mugimenduak, pediatria, erradiokirurgia, neuroonkologia eta patologia baskular zerebroespinal neurokirurgikoa.

- **Presentziazko guardiak 24h/365:** presentziazko adjuntua eta lokalizatua urteko egun guztietan. Presentziazko egoiliarra gehienez ere 66 lanaldi urtean (egoiliar bakoitzeko), 24 ordutakoak. Egoiliarraren gardien edukia espezialitateko programa nazionalean zehaztutakoari egokitzen zaio eta aldaketa prozesu sakonean dago.

Urteko jarduera hemen dago eskuragarri:

[Ospitalea > Urteko Memoria Osorik “arlotu klinikoak”](#)



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea Prestakuntza Espezializatuko Programa Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Non gaude

Neurokirurgia Zerbitzua Gurutzetako Unibertsitate

Ospitalean dago:

Gurutzetako plaza z.g. Barakaldo 48903.

Barakaldo, Bizkaia

[Ospitalea Google Maps aplikazioan ikusi](#)

Zerbitzuaren idazkaritza:

1. solairuan, A blokean

Administrazio-idazkaria:

María Jesús Iglesias

Harremanetarako telefonoa: +34-94.600.6361

Posta elektronikoa:

secretaria.neurocirugiacruces@osakidetza.net





Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Prestakuntza-eskaintza

Gure organizazio eta jarduera asistentzialari esker, Neurokirurgia orokorreko espezialisten prestakuntza eskaini ahal dugu espezialitatearen beraren edukietan, hauek dira aipagarriak:

- a. Patologia traumatiko kranial eta errakimedular larriaren maneiu eta tratamendu mediko eta kirurgikoa.
- b. Patologia onkologiko zerebralaren eta errakimedularren ebaluazioa, diagnostikoa, tratamendua eta jarraipen kirurgikoa.
- c. Hidrozefaliaren azterketa, diagnostikoa eta tratamendua, bere aurkezpen eta terapia modalitate guztietan.
- d. Errakiaren endekapenezko patologia, patologia infekzioso eta onkologikoaren ebaluazioa eta tratamendu kirurgikoa, maila zerbikal, dortsal zein lunbosakroan.
- e. Patologia baskular hemorragiko zerebral eta medularren azterketa, diagnostikoa eta maneiu kirurgikoa.
- f. Patologia neurokirurgiko pediatrikoaren ebaluazio eta tratamendu kirurgikoa.
- g. Prestakuntza-hurbilketa alderdi oso espezializatuen maneiu kirurgikoari: oinalde kranialeko eta betzuloko kirurgia, epilepsiako eta arazo funtzionaleko kirurgia sakoneko estimulazio zerebralaren bidez, kirurgia zerebral konplexua, instrumentazio errakideo konplexua, kirurgia hipofisarioa eta malformazio kranioespinalen kirurgia.

Informazio gehiagorako, gure zerbitzu-zorroa hemen ikus daiteke:

http://neurocirugia.hospitalcruces.com/8_5262/pagina.aspx

Irakaskuntza Batzordeak [ikastaroak \(ikusi irakaskuntza-jarduerak\)](#) antolatzen ditu espezialitate guztien oinarrizko prestakuntza osatzeko. Ikastaro gehienak nahitaezkoak dira azken titulazioa lortzeko.

Ospitaleak [Saio Orokorrak \(ikusi irakaskuntza-jarduerak\)](#) burutzen ditu hilero asteazken batean edo bitan, 8:30ean Areto Nagusian. Saio horiek funtsezkoak dira prestakuntza integrala lortzeko, espezialitatea edozein izanda ere, alde batetik, interes bereziko kasu klinikoei buruz ikasten delako, beste batetik, Ospitalearen, zerbitzuen edo unitateen funtzionamendua ezagutzeko balio dutelako – bai eta beren arteko erlazioa zein den ere– eta bukatzeko, hainbat batzorderen jarduera garrantzitsuaren berri ematen dutelako.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES



Prestakuntza ibilbidea (errotazioak)

Neurokirurgiako BAME prestakuntza gida edo ibilbidea Guruztetako Unibertsitate Ospitalea (GUO) 2014-2019

	eka	uzt	abu	ira	urr	aza	abe	urt	ots	mar	api	mai
E 1	NEUROKIRUGIA			Infekzios oak	KIR. OROKORRA "A"		K. TORAZIKOA		K. BASKULARRA		NFS	A. P.
E 2	NEUROLOGIA		BIZKORTZEA		NEURORX.	NEUROKIRUGIA						
E 3	NEUROKIRUGIA											
E 4	Kanp. Errot. Naz.	NEUROKIRUGIA										
E 5	Atzerri an	NEUROKIRUGIA										

E1 – E2

Egonaldi hasiera Neurokirurgia Zerbitzuan langileekin eta beren ohiturekin kontaktua hartzeko 2-3 hilabeteetan. Ondoren ezarritako derrigorrezko prestakuntza errotazioen hasiera: Kirurgia Orokorra "A" (2 hilabete); Kirurgia Torazikoa (2 hilabete); Kirurgia Baskularra (2 hilabete); Neurofisiologia (hilabete 1); Anatomia Patologikoa – Neuroonkologia (hilabete 1); Neurologia (2 hilabete); Kritikoaren Unitatea – Bizkortzea (2 hilabete); Neuroerradiologia (2 hilabete); banan-banako beste batzuk.

E2 – E5

Neurokirurgia Zerbitzua

Kanpo errotazio nazionalak

Ahal dela egonaldiaren 4. urtean egiteko, 2-3 hilabete, Estatuko Unitate ospetsu batean: Neurotraumatologia, Neurokirurgia Pediatrikoa, etab.

Nazioartean izen ona duen zentro batean egonaldia atzerrian

Ahal dela egonaldiaren 5. urtearen hasieran egiteko, hilabete bat bikaintasun Unitate batean, espezialitateko alderdi konplexu eta garrantzitsuren baten tratamenduan ospea duena eta bere bolumenagatik patologia horretan bereziki arduratzen den zentroa duena: malformazio baskularretako eta birbaskularizazio zerebraleko kirurgia; oinalde kranialeko kirurgia, neurokirurgia funtzionala, neurokirurgia pediatrikoa, etab.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Guruzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



#	EKA	UZH	ABU	IRA	URR	AZA	ABE	URT	OTS	MAR	API	MAI
E1	<p>Anamnesia eta espl. orokorra eta neurologikoa. Gaixotasunen maneiu medikoa. Koman dagoen pazientearenganako hurbilketa.</p> <p>Zenbait prozedura diagnostiko: zitzada lunbarra, drainatze lunbarra...</p> <p>Desbridamendua eta zauri eta planoen araberako jostura errazen garbiketa</p> <p>Oinarrizko ezagutza orokorrak: bildumak, zaurien sendaketa eta seromak</p> <p>Drainatze bentrrikular errazak eta trepanoak eta tresneria kirurgiko orokorraren ezagutza mailakatua</p> <p>Kateterizazio baskular periferikoa eta bide zentralako kateterizazioa. Intubazio endotrakeala</p>											
E2	<p>Anamnesia eta esplorazioa NKGn. Larrialdi mediko nagusien maneiu medikoa</p> <p>Kanpo bentrikulostomiak eta presio erregistroak. Deribazio bentrikulu-peritonealak</p> <p>H. Subduralak / T. Carpo / Hernia diskal sinpleak L eta Z</p>											
E3	<p>Kanpo bentrikulostomiak eta presio erregistroak. Deribazio bentrikulu-peritonealak</p> <p>H. Subduralak / T. Carpo / Hernia diskal sinple Lunbarrak eta Zerbikalak</p> <p>Kraneotomia errazak eta urgentziazkoak</p>											
E4	<p>Neurokirurgia funtzionala: Parkinson...</p> <p>Kraneotomia errazak eta tumore errakimedularrak</p> <p>Bizkarrezur zerbikaleko eta lunbarreko kirurgia instrumentatua</p>											
E5	<p>Epilepsiaren kirurgia</p> <p>Neurokirurgia endoskopikoa eta neurokirurgia pediatrikoa</p> <p>Tumore zerebralak eta errakimedular konplexuak eta betzulokoak</p> <p>Prozedura baskular konplexuak eta oinalde kraniala, hipofisiko kirurgia barne</p> <p>Kirurgia errakideoaren prozedura konplexuak: bizkarrezur torazikoko lehentasuna eta txanga okzipitozerbikala</p>											

#Distribución aproximada de la actividad asistencial y quirúrgica de los residentes de Neurocirugía adquiriendo complejidad creciente a medida que avanzan en su formación y siendo sumativa (un nivel engloba a los anteriores).



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES



- **Etengabeko arreta – Guardiak** (4 – 6 artean): Larrialdiko Zerbitzuan Medikuntza eta Traumatologia arloetan guardiak egingo ditu lehenengo bi urteetan, eta aldi berean, errotazio bakoitzeko espezifikoa ere egingo ditu. Traumatologia eta Larrialdietako arlokoetan urgentziako paziente neurokirurgikoen asistentzia sartuko da. Hirugarren urtetik aurrera eta bukaerara arte Neurokirurgiako guardiak egingo ditu soilik, zerbitzu-zorroan zehaztutako edukiaren arabera. Errotazio-aldian Ospitaleko beste zerbitzuren batean dagoenean, zerbitzu horretako guardiei emango zaie lehentasuna, Larrialdietako Zerbitzuan egindakoak ere kontutan hartuko dira. Neurokirurgia zerbitzuko prestakuntza proposamena Neurokirurgiako egoiliarren guardiak 2 urtetan antolatzen ditu.

- Egonaldiaren lehenengo bi urteetan, errotazioan dagoen zerbitzuan eta Traumatologiako Larrialdiko taldean egingo ditu guardiak eta talde horretako pazienteak artatuko ditu, Neurokirurgiakoak barne (1. deia), horiez gain, Larrialdietako Medikuntza arloan ere egingo ditu guardiak. Aldi hori igarota, Neurokirurgiako guardiak egingo ditu soilik, espezialitateko eduki kirurgikoekin bakarrik, Traumatologia eta Medikuntza Larrialdietako Taldeak alde batera utzita. [Diseinu hau ezartzeko zain dago oraindik.](#)

*	EKA	UZT	ABU	IRA	URR	AZA	ABE	URT	OTS	MAR	API	MAI
E1	Neurokirurgiako guardiak Larrialdi traumatologikoen eta orokorren Taldean*											
E2	Errotazioan dagoen espezialitatearen berriazko guardiak											
E3	Neurokirurgiako berriazko guardiak: 1. Deia. Patologia Neurokirurgiko urgentea											
E4	Neurokirurgiako berriazko guardiak: 1. Deia. Patologia Neurokirurgiko urgentea											
E5	Neurokirurgiako berriazko guardiak: 1. Deia. Patologia Neurokirurgiko urgentea.											

*Neurokirurgiako prestakuntza-aldiko guardien antolamendua

Mintegi, ikastaro eta saio klinikoetan parte-hartzea: Ospitalean eta Zerbitzuan antolatzen diren jarduera guztietara joatea derrigorrezkoa da, berriazko BAMEentzat egiten diren etara zein orokorretara.

Neurokirurgia zerbitzuan honelako saioak egiten dira: Journal Club motakoak, kasuenak, berrikuste tematikoenak, bibliografikoak, morbiditateenak, diziplina anitzenak, etab. astelehenetan 8:15ean betiko tarte finkoan.

Babes erradiologikoen errotazioa “116 Babes Erradiologikoa” izeneko gidari egokitua eta Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak antolatua.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Guruzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Parte-hartze asistentziala kanpo-kontsultetan: gutxienez egonaldiaren 4. urtetik aurrera, kanpo kontsultetara joaten dira artatzera era mailakatuan, eta pixkanaka, beren maiztasuna handitzen doaz alderdi asistentzial horretan.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Ikerkuntza

Ospitaleak [Biocruces Ikerkuntza Institutua](#)ren laguntza dauka ikerketarako eta gure zerbitzua **Nanoneurokirurgia Taldearen** buru da. Taldekide batzuk, gainera, orain dela hamarkada batzuetatik hona UPV/EHUko Neurozientzia Saileko LaNCE Taldearekin lankidetzan ari dira, eta horrela, lankidetzako marko-hitzarmen baten barruan, gaixotasun neuroonkologikoaren ikerketa lerro bat indartzen ari dira.

Horrez gain, nervio-sistemaren gaixotasun arloaren barruan parte hartzen du konputagailu-neuroirudiarekin eta gaixotasun metaboliko eta neurolooonkologiarekin erlazionatutako beste ikerketa talde batzuetan.

Neurokirurgia Zerbitzuko ikerketa jardura *talde satelitea* da honakoetan: adenoma hipofisarioen ikerketa (Proyecto Remah), Gurutzetako UOko Endokrinologia Zerbitzuak gidatuta; tumore zerebralen azterketa adin pediatrikoan, meduloblastoma eta PNET bereziki, Gurutzetako UOko Onkologia pediatrikoko zerbitzuak gidatuta eta patologia neurodegenetariboaren ikerketa, *ezhoiko mugimenduak* besteak beste, Gurutzetako UOko Neurologia Zerbitzuak gidatuta. Horiez gain, Zerbitzuak zentro anitzeko saio klinikoetan parte hartu ohi izan du hainbat patologia neurokirurgikoko testuingurutan: iktus hemorragikoa (STICH, MISTIES III), traumatismo kranioentzefaliko larria (Dexanabinol, GPK TKE EAEn, Centre-TBI). Gaur egun, bi proiektu egokitzeko zain dago: TBiko nazioarteko traumatismo kranioentzefalikoari buruzko bat eta iktus hemorragikoaren maneiu kirurgikoari buruzko beste bat (MISTIE-III).

Egoiliarra mailaka batzen da ikerketa lanetara eta doktorego-tesia has dezake. Tesia azken urtetarako uzten da, ahal dela 5. mailarako.

Jarduera zientifikoari buruzko informazio zehatzagorako:

[Ospitalea > Ospitalearen urteko memoria](#)



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



Prestakuntzaren ebaluazioa

Ebaluazioa ikasketaren motorra da eta ikasketa erraztera zuzenduta dago, beraz, indarrak eta ahultasunak antzeman eta hobekuntza planak ezarriko ditu. “Ebaluazio formatiboa” deitutako ebaluazio-mota horretarako, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleak gaitasunetan oinarrituta dauden zenbait metodo kualitatibo erabiltzen ditu. Behean aipatuko diren metodo horiei esker, informazio zehatz bat iturri anitzetik lortu eta hainbat ikuspegi izan ditzake (gainbegiralearen ebaluazioa, norberak egindako hausnarketa eta autoebaluazioa). Informazio horrekin, **Urteko Ebaluazio Batzordeak** txosten bat lantzen du adostasunez, eta bertan, egoiliarren indarrak eta hobetzeko arloak (egongo balira) adierazten dira. Gaitasunetan oinarritutako txosten honek ezinbestean egindako ikastaroen egiaztagiriarekin batera **“Egoiliarren Urteko Txostena”** osatzen dute. Tutorea prestakuntza-prozesu guztiaren kudeaketaren arduraduna da eta Urteko Txostena emango dio ikasleari.

Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Anestesiologia eta Bizkortze Zerbitzuko BAMEek (Barneko Mediku Egoiliarrek) lortu beharreko gaitasunak XXI. mendeko medikuaren zazpi gaitasun-eremuetara egokitzen dira, Ospitaleko irakaskuntza Batzordeak zehaztutakoaren arabera:

1. Balio profesionalak, jarrerak, jokabidea eta etika.
2. Pazientea zaintzea eta trebetasun klinikoak.
3. Ezagutza medikoak / medikuntzaren oinarri zientifikoak.
4. Komunikazioa.
5. Osasun sistemaren testuinguruan oinarritutako praktika (Osasunaren sustatzailea eta Baliabideen Kudeatzailea).
6. Ikaskuntzan eta hobekuntzan oinarritutako praktika (Análisi kritikoa eta ikerketa).
7. Informazioaren erabilera.

Espezialitate honi dagozkion asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketako gaitasunak [Neurokirurgia espezialitatearen programan](#) jasotzen dira.

Gurutzeta Unibertsitate Ospitaleko ebaluazio sistema orokorra¹

[Irakaskuntza Batzordeak](#) eta Gaitasunen Ebaluazio Batzordeak ebaluazio-sistema zuzentzen dute. Sistema hori Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea 2008. urtetik garatzen joan den [“Gaitasunetan oinarritutako Prestakuntza Espezializatua”](#) proiektuaren parte da.

¹ Morán-Barrios J, Amutio E, Barbier L, Carrasco A, Gil-Lemus MA, Gómez B, Iriberrí M, Padilla L, Rodríguez-Iñigo MA, Saá R, Larrañaga I, Nieto J, Udaondo J y González-Larragán S. Evaluación del residente basada en competencias. El modelo del Hospital Universitario de Cruces. XXI Congreso de la Sociedad Española de Educación Médica Madrid 2013. FEM 2013; 16 (Supl 2): S62. Disponible en: <http://www.sedem.org/resources/abstractsSedem2013.pdf>.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES

Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea
Prestakuntza Espezializatuko Programa
Barakaldo, Bizkaia – Euskadi (Espainia)



- a. Errotazio bakoitzaren Gainbegirale zuzenaren ebaluazioa, Gaitasunetan oinarritutako formulario baten bidez (Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko berezko eredua)
- b. Tutorearekin aldian behingo elkarrizketak (gutxienez urtean bi)
- c. Autoebaluazioa
- d. Urteko Memoria (Egoiliarren Liburuaren baliokidea da) bi alderdi hauek sartzen ditu: jasotako gaitasunen gaineko hausnarketa eta asistentzia-, irakaskuntza- eta ikerketa-jardueren zein lanbidearekin erlaxionatutako beste ekintzen kuantifikazioa
- e. Gaitasunetan oinarritutako Tutorearen urteko txostena
- f. Ebaluazio Batzordearen urteko balorazioa
- g. Irakaskuntza Batzordeak antolatutako derrigorrezko ikastaroak egitea
- h. Gaitasunetan oinarritutako urteko banako txostena

Egoiliarren ebaluazioa jasotako Prestakuntzaren gainean.

1. Urtero, apirilean, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak Euskal Autonomia Erkidegoko egoiliar guztiei gogobetetze-inkesta bat bidaltzen die.
2. Bi urtean behin, otsaila eta martxoa bitartean, Gurutzetako Unibertsitate Ospitaleko Irakaskuntza Batzordeak gogobetetze-inkesta bat bidaltzen du. Inkesta hau orain dela 20 urte egiten da. Emaizak zerbitzuei eta egoiliarrei jakinarazten zaizkie.

Irakaskuntza Batzordeak onartutako Neurokirurgia zerbitzuko berezko metodoak.

Zerbitzuak *indarguneak*, *ahulguneak* eta *hobetzeko arloak* aurkitzeko ebaluazioak egiten ditu. Horrekin batera, *prestakuntza akademikoaren* ebaluazioa eta *personarteko harremanetan* zein *kanpo kontsultetan* garatutako trebetasunen ebaluazioa ere egiten du.

Zenbait *prozesu asistentzialen ebaluaziorako formulario espezifiko* puntualak diseinatzeko ari dira, horietan egoiliarrak hartzen du parte eta autoebaluazio-izaera duten ezagutza probak ere egiten ditu, era horretan, autoikaskuntza sustatuz eta “irakaskuntzan” oinarritutako eskematik urrun.



Osakidetza

EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES
ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA
EZKERRALDEA - ENKARTERRI - CRUCES



NEUROKIRURGIA ©